

Menpekotasun energetikoa garai nahasietan



**MIKEL OTERO
GABIRONDO**
LEGE BILTZARKIDEA

Energia hizpide non-nahi. Elektrizitatea, gasa, gasolioa, dena garesti, herritarren eta enpresen fakturak itotzeraino igoz, energia luxuzko produktua bihurtuz. Errusia deabru bihurturik, europarrok harekiko dugun menpekotasunean ipini digute fokua, hartzairen hatzetatik libratzeko sakrifizioak eskatuz. Baina arazo konplexu guztietan bezala, kontua sakonagoa da. Hego Euskal Herriaren kanpo energia-erikiko menpekotasuna ikaragarria izanik (%85) eta gure oinarri energetikoa fosila izanik (%80), agerikoa da berriztagarrietan oinarria duen subiranotasun energetikoa serio hartu behar dela. Arrazoiak, ugari; lehena, klima, atmosferara bidaltzen ditugun berotegi efektuzko gasen %90a fosilen erretzeak baitakar. Bigarrena, fosilen izaera finitua. Altxorra ez da betirako eta hobe dugu erregai fosilak gainditzea beraiek gu utzi aurretik. Hirugarrena, faktura. Aurtengo prezioekin, kanpoko energia ordaintzeko 10.000 milioi euro beharko ditugu, mikro eta makro ekonomia kaltetuz.

Guztia buruan, energia aurrezpena bultzatzeaz gain, berriztagarrietara jauzi egitea dagokigu. Baliabide fosilek eskaintzen diguten energia andana ordezkatzina bada ere, pauso azkarrak eman beharrean gaude. Hori bai, energia be-

rriztagarria aprobetxatzeko instalazioek baliabide material mugatuak, sarri bakanak, erabiltzen dituztela ahaztu gabe. Erronka zenbat, nor, non eta nola garatu erabakitzea litzateke. Ahal den neurrian, herritarren jabegoan egongo diren eskala txikiko proiektu barreiatuen eredu sustatzea premiazkoa da, baina mugak ditu. Etxeetako eta merkataritzako kontsumoak ase ditzakegu horrela, baino garraioa eta industria mugitzeak beste eskala bat eskatzen du. Horratz arazoa, berriztagarriek lurraldearekin hartu-eman gatazkatsua baitute. Ez da berdina teilatuko plaka, ortu fotovoltaiako kooperatiboa, edo eskala handiko soro fotovoltaiako edo haize errota. Nago ni, zenbakiak eskuan, denetik beharko dugula.

Horregatik da hain garrantzitsua berriztagarrien hedapena lurralde plangintza zorrotz batekin, ingurumenaren zaintzarekin eta elikadura subiranotasunarekin uztartzea. Are gehiago, etorkizuneko energia lortzeak gure lurraldean eragina izango badu, eta izango du, errentagarritasun soziala ongi neurtzea hil ala bizikoa da, eta hori oinarritzen da planifikazio eta bultzada publikoan, herritarren parte hartze aktiboan (plangintza zein jabegoan), eta espekulatzailerak ekuaziotik kanpo uztean. ●

Kontziliatu?



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Andrazko estresatuta, eskolara bi-dean antxintxika, merienda eta kirol poltsa aldean. Hori litzateke ia guztion burura etorriko litzatekeen irudia zaintza eta kontziliazioa aitatu bagenitu.

Kontu zabalagoa da, ostera. Umeak jagotea ez ezik, zaharrak edota behar bereziren bat dutenez arduratzea ere bada. Eta lan-hitzarmen batzuetan jasota dagoen arren, herriek, azpiegiturek eta erakunde ofizialek ez dute kontuan hartzen.

Medikuarenera joateko, adibidez. Pertsona batzuek lagunduta joan behar dute, eta eroan egin behar dira. Baina in-

guruan ez dago autoa non aparkatu, edo toki bereziren bat egonez gero, beteta dago. Beraz, laguntzaile bi behar ditu: berarekin sartuko dena kontsultan, eta automobila aparkatuko duena.

Zaintzaile bi. Batzuetan bezperan abisatuta, egun osoa libre balute moduan. Agian, probintziako beste puntaraino joan behar dira, nahiz eta etxetik gertuago dagoen zentro baten ere proba hori berori egitea dagoen. Denboraz gain, autobidearen gastua eta erregaia ordaindu behar. Autoa, ezinbestean.

Inor ez da zaintzailearen azalean jartzten, eta horrela gaitza da kontziliatzea. ●